



Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

Ikaslea: Jorge Presa Feijoo
Tutorea: Iñaki Begiristain Mitxelena
Gradu Amaierako Lana 2019/07/05




AURKIBIDEA

A- MEMORIA IDATZIA

- 01- LABURPENA
- 02- BILBO ETA ARTEA
- 03- BILBAO ART DISTRICT AREA
- 04- AKTUAZIO ESPARRUA
- 05- PLANEAMENDUA
- 06- ARAUDIAREN KRITIKA
- 07- BILBO KONEKTATZEN
- 08- PROIEKTUAREN ABIAPUNTUA
- 09/18- PROIEKTUAREN GARAPENA
- 19- TAILERREN MULTIFUNTZIONALTASUNA
- 20- MATERIALTASUNA

B- MEMORIA GRAFIKOA

- P01/02- KOKAPENA
- P03- GAUR EGUNGO EGOERA: OINAK
- P04- GAUER EGUNGO EGOERA: EBAKETAK
- P05- PROIEKTUAREN GARAPENA AUZO MAILA
- P06- PROIEKTUAREN GARAPENA ERAIKIN MAILA
- P07- AKTUAZIO EREMUAREN OINA
- P08- BEHE OINA
- P09- LEHEN SOLAIRUA
- P10- EBAKETA A-A'
- P11- EBAKETA B-B'
- P12- EBAKETA D-D'
- P13- EBAKETA E-E'
- P14- LUZERAKO EBAKETAK
- P15/17- ALTXAERAK



MEMORIA IDATZIA

KOKAPENA

Atxuriko tren geltokia erabilera gabe geratuko da, izan ere Bilbon eraiki den metroko 3. linea bertara iristen diren tren linea guztiak xurgatuko ditu, Atxuriko tren geltokia trenik gabe utziz.

Gaur egun Bermeoko linea da geltokira iristen den linea bakarra, bestelako lineak (Donosti, Gernika, Durango...) Etxebarriko Kukullagako geltokitik, eta metroko 3. linea hartuz, Bilbo barrenera sartzen dira, kanpotarrentzak bidaia erraztuz. Horrela, Etxebarriko geltokiaren eta Atxuriko geltokiaren arteko trenbidea trenik gabe geratuko litzateke.

Atxuriko tren geltokia Atxuriko auzoan kokatzen da, Bilbo osorako ardatza den ibai ertzaren ondoan. Atxuri, Zazpikaleen alboan kokatzen da eta Bilboko lehen hazkundea suposatu zuen XVII mendean garatu zena. Hedapen hau harriztutako hiriaren hegoaldera eman zen, ibaiko ertza jarraituz. Gaur egun, Atxuriko auzoak 5.000 biztanle baino gehiago dituen Bilboko auzoa da, San Anton elizaren inguruan hedatzen dena eta guztira 17,80 hektarea inguruko azalera hartzen duena.

GAIA

Bilboko hiria artea hiritarrei hurbiltzen ahalegin handiak egin ditu azken boladan, eta batez ere Guggenheimeko museoa eraiki zenetik. Guggenheim-eko museoko Bilboko hazkuntza handienari hasiera eman zion eta honekin batera galeria, erakusketa espazio eta eskultura ugari ezarri dira Bilboko kaleetan eta espazio urbanoan.

Baina Bilbo ahaztu egin du hiritarrak artera hurbiltzen, izan ere hura sortzeko eta horiekin esperimintatzeko tokiak hiriko periferiara mugatuta daude, inguruko poligono industrialetan kokatutako pabilioiak alokatuz, zorrozaurreko irlan kokatutako pabilioen barnean (Zaha Hadid-ek garatutako master planaren ondorioz eraitsiko dituztenak) edo beste hiriedo herri batean kokatutako edozein lekutan. Bilbon erakusten den artearen gehiengo inportatua da.

Proiektu honekin hiritarrak arteari hurbiltzen sahiatuko da, hiritarrentzako espazioak sortuz artea lantzen duten bitartean. Aukera eman nahi zaio bilboko hiritarrei artelanen munduan barna ibiltzeko, esperimintatzeko, jolasteko eta sahiatzeko, horrela hiri sortzaile bat sortuz.

PROGRAMA

Sortu nahi den arteen zentroa arte akademia edota eskolak sortzen duten programa hartuko du abiapuntu, hezkuntza soila eskeintzen duten programari produkzioarako, lanketarako, aisialdirako eta bizitzarako espazioak gehituz, non hiritar eta artisten arteko topagunea izango den, artelanen inguruan jakinduria ezberdina duten pertsonen arteko harremana bultzatuz. Bilboko artea bilbon produzitzeko aukera eman nahi da zentru honekin.

Bilboko artistentzat eta hiritarrentzat esperimintaziorako, lan egiteko eta hezkuntzara bideratutako espazioak sortu nahi dira, non arte ezberdineko disziplinen (dantza, argazkigintza, zinema, margolanak, eskultura eta musika) arteko komunikazioa bultzatu nahi den. Produkzio zentru hau handiago den sare batean (Bilbao Art District) txertatuko litzateke, sare horren beharrak, hala nola, produkzio espazio zabalak, eskeiniz.

Atxuriko tren geltokiak 5.5722,86m² dituen azalera duen eraikina produkzio espaziorako egokia den eraikina da, bai bere morfologiagatik, kokatuta dagoen orubearengatik eta hura hazteko duen aukerengatik.



MUSEO ETA ARTE GALERIAK

Garrantzitsuen Guggenheim museoa da, baina eraiki zenetik gerotik galeria asko eta asko bilbon ezarri ziren, hala nola, Martzana espazioa, SC gallery edota Carreras Mugica. Bestelako museo nabarmenak ere bazeuden bilbon: Arte Ederren museoa edo Euskal museoa adibidez. Gune hauek artearen dibulgazioan lan egiten dute.

Bilboko hirian zehar topa ditzazkegu, kontzentrazio handiena bilboko alde zaharrean aurkitzen badugu ere. Bilboko auzo guztietan erakusketa espazio bat topa dezakegu (Indautxun Galeria Anticuaria, Abandon Galerias Mugica, Bilbao La Viejan SC gallery, Alde Zaharrean Euskal museoa...), turistentzat erakargarri izaten direnak.

KOMERTZIO GUNEAK


Bilbon, erakusketaz gain, zenbat gunetan arteen komertzioan ere aritzen dira. Espazio hauek kantitate txikiagotan aurki ditzazkegu Bilbon, baina haun garrantzia ere nabarmena da. Hauen artean, Aerre espazioa, Mongolia, Narata eta Zaila lokalak aurkitzen dira espazio hauen artean. Esan bezala, gune hauen helburua artearen dibulgazioaz gain, hauen komertzioa ere bada.

Nahiz eta komertziorako leku gutxi batzuk egon hauek pertsonen mugimendu nabaria sortzen dute bere inguruan. Galeria espazio gehienak salmentarako lekua ere badute, baina komertzio gune hauek espreski salmentarako eta komertziorako diseinatuak izan dira. Hauek Bilbo erdiguneko auzoetan, hala nola Indautxun, Abandon edota Alde zaharrean, topa ditzazkegu.

PRODUKZIO GUNEAK

Gune hauek arte ezberdinen, batez ere eskulturen eta margolanen, produktoria bideratzen dituzte euren espazioak. Gune hauen artean, Bilbaoarte fundazioa, Okela sormen lantegia, Wikitokia eta Histeria Kolektiba espazioak aurkitzen dira. Espazio honetan arteen produkzio, dibulgazio eta hezkuntzarako tokiak izaten dituzte.

Produkzioaz gain arte munduaren inguruko txarrek edota ekitaldiak prestatzen dituzte, artearen dibulgazioan ere lan eginez. Bertoko edo kanpoko espezialistak, artistak eta profesionalak ekartzen sahiatzen dira, artea hiritarrei hurbiltzeko ahaleginak eginez. Gune hauek Alde Zaharrean, Bilbao La Viejan eta Atxuriko auzoen inguruan kokatzen dira. Produkzio gune hauek Bilbao Art District sarearen inguruan antolatzen dira.



ERAKUSKETA GUNEAK



KOMERTZIO GUNEAK



PRODUKZIO GUNEAK

--- BILBAO ART DISTRICT

LEKUAREN AUKERAKETA

Atxuriko auzoan, Bilboko alde zaharrea eta Bilbao La Vieja auzoetan 2013. urtean Bilbao Art District sarea ezarri zen. Bertan existitzen ziren artearen inguruko lokalak, komertzioak edota erakusketa gunean elkar harremanetan jartzen dira, hiri-tarrak arteari hurbiltzeko asmotan, hiri sortzaile bat sortzeko nahiarekin.

Ekintza hau 2010. hamarkadan sortzen da, Bilbao Ekintza-k (udaletxeko udal sozietatea) bultzatuta. Sare honetan Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko bestelako arte munduen eragileak, hala nola, museoak, galeriak edo erakusketa espazioak) ere parte hartzen dute. Bilbao Ekintza-k proiektu inspiratzailea, irekia, barneratzailea eta Bilboko hiriarren aktibatzaile bezala aurreikusi zen, Bilboko hiri artearen distrito bakarra izateko eta artearen inguruko ekosistema sortzailea sortuz.

Sare honetan gizartearen artearen kontsumitzeko modua, hau da, eszenatoki edo museoaren tipologiarekin, hautsi nahi du, horrela eragile artistikoen ohiko rolen apurtuz eta Bilboko hiritarra arte prozesuaren parte bat izatea lortu nahi du, honen eragilea bihurtuz. Hiritarra rol kontsumistatik artearen munduaren eragile izatera bultzatu nahi du, horrela hiritarra aktibatuz.

Sare honetan urte osoan zehar funtzionatzen dituzten lokalak ditu aipatutako helburuak lor daitezzen. Horrez gain, hiritarrentzako ekitaldi eta programazio bereziak antolatzen dituzte, bai kaleetan bai lokaletan, maiatzean eta urrian, artea hiritarrei hurbiltzeko asmoz.

Ekintza hau hiru auzo hauetan ezarri da, hasierako fase bat garatzeko, hiru auzo hauetan arteei zuzendutako espazioak Bilboko guneetatik dentsitate handiena duena baita. Guztira 13 espazio daude arteari zuzenduta (artearen produktzioa, komertzioa edo erakusketara) 1 km² (100ha) baino gutxiagoko azalera batean. Bilbo guztian gune honetan aurkitzen diren espazioen bikoitza baino gutxiago aurkitzen dira.

Komertzio eta erakusketa guneak proiektatuak izan ziren bezala ondo funtzionatzen jarraitzen dute. Produktzio guneak, ordea, urteetan gauzatutako arte obren pilaketa dela eta, horiek erakusketa guneak bihurtu dira gehienbat. Nahiz eta duela 5 urte sortu sarea, espazio hauek jada existitzen ziren, beren jarduera urtez aurrera eraman zutelarik. Horrez gain, ekintza hau martxan jartzean, bai artisten bai Bilboko hiritarren erantzuna handia izan da, artelanen produktzio handia gauzatu. Gainera, auzo hauek hirian duten kokapen estrategikoa dela eta horren lehenengo hazkuntza suposatuz, orube eta partzela txikiez sortuak izan zirenak. Espazioen falta dela eta, gune hauek sortutako obren erakusketa gune bihurtu dira, produktzioa berriz bilbotik at eramanaz. Hala eta guztiz ere, espazio hauek artearen dibulgaziora dedikatzen jarraitzen dute, ahal izanez gero arteen inguruko txarrik eginez, hiritarra arteari hurbilduz.

Atxuriko tren geltokiaren ohiko funtzionamenduaren amaiera eta horrek duen espazioen zabalera eta azalera handiak artearen produktzioa Bilbora eta Bilbao Art District-a barneratzen dituen auzoetara berriz ekartzeko aukera ematen du, Bilbao Art District sarea eskatzen dituen produktzio guneak sortuz.

DISTRITO ARTISTIKOTIK HIRI SORTZAILERA



HIRI ESZENATOKITIK HIRI ERAGILERA

- | | | |
|---------------------|-----------------------|-------------------------|
| 1 AMETSARTE | 6 MARZANA ESPAZIOA | 11 WIKITOKI |
| 2 EUSKAL MUSEOA | 7 ALDAMA FABRE | 12 CONSONNI |
| 3 DA VINCI GALERIA | 8 ARTE SAKRO MUSEOA | 13 OKELA SORMEN LANTEGI |
| 4 KONBENTU ZAHARRA | 9 MONGOLIA | 14 BILBAOARTE FUNDAZIOA |
| 5 BERREGINEN MUSEOA | 10 HISTERIA KOLEKTIBA | |



GELTOKIA GAUR EGUN

Atxuriko tren geltokia Manuel Maria Smith-ek eraiki zuen 1912an, lehiaketa publiko bat irabazi ostean. Tren geltoki berri honek aurretik existitzen zen eta 1882an eraiki zen tren geltokia ordeztu zuen. Atxuriko geltokia itxura neoeuskaldunarekin proiektatu zen (baserri baten itxura ekartzen digu gogora) eta Bilborako sarrera ate nagusi bat balitz bezala hartu zen, monumenaltasunarekin.

Harez geroztik tren geltokiak ez du zerikusirik proiektatu zen tren geltokiarekin. Bere horretan mantendu diren elementu bakarrak kanpo fatxadak eta barne egitura izan dira. Lehen kafetegia zena, orain bulegoetan bilakatu dira; aintzinean biltegi bat zena, egun langileentzako parking pribatua dugu. Eraikinak denboran zehar moldatzen joaten dira, beharrezkoak diren erabileretara.

Gaur egun, Atxuriko tren geltokia funtzionamenduan jarraitzen du. Nahiz eta administrazioaren nahia zen pasaden urteko Urrian Euskotreneko trenak metroko 3. lineatik sartzea, oraindik Bermeoko linea geltokiko azken geralekua izaten jarraitzen du. Trenaz gain, Euskotrenen bulegoak eta formakuntza espazioak topatzen dira. Administrazioak, seguraski, trenaren desagerpena atzeratzen ari da eraikinarekin zer egin erabakitzen duten bitartean.

Trenaz gain dauden erabilerak ere eraikina utziko dute. Gernikan Euskotrenen zerbitzuetarako zentro berria kokatuko da eta bertara hemen kokatutako bulegoak, artxibategiak eta formakuntza eramango dute, bertan zerbitzu guztiak zentralizatuz.


Egun ez dago argi zer gertatuko den Atxuriko geltokiarekin. Administrazioaren aldetik nahiak baino ez dira ikusten, ezer ez argi utzi gabe: tren museoa, zentru logistikoa... Indarrean dagoen araudiak eta proposatutako planak ere airean uzten dute geltokiaren etorkizuna.

Eraikina ikusirik 2 bolumen ezberdinetan sailka daiteke:

- Bidaiarien bolumena: Alde monumentalak. Behe oina eta bi solairu dauzka. Honez gain kanpandorra dauka hirugarren solairu bezala. Beste bolumenetik isolatuta agertzen da, konexio puntu batzuekin behe oinean eta lehen solairuan. Behe oinean alderdi publikoena kokatzen da, geltokiaren sarrera eta bezeroen arreta dituelarik. Goiko bi solairuetan bulegoak eta batzar gelak kokatzen dira.

-Zerbitzu nabea. Alde funtzionala. Behe pisua eta solairu bakarra dauka bere luzerara ia guztian, hasieran bigarren solairu bat duelarik. Behe pisuan trenbideak kontrolatzen dituen zerbitzu logistikoa kokatzen dira, lehen pisuan bulegoak daude eta bigarren solairuan biltegi eta artxibategiak kokatzen dira.

Egiturari dagokionez harearizko (harlandua edo harlangabea dena) bermatzen den zementu armatuzko forjatuetan datza. Zutabe gutxi batzuk agertzen dira bolumen monumentalean, hauek metalezkoak direlarik, eta zerbitzu nabean, hormigoizkoak kasu honetan. Eskaileren kaxa adreiluzko karga hormetan bermatzen dira, gauzatutako



ARAUDIA ETA PROPOSAMENA

Gaur egun, Atxuriko tren geltokia Bilboko HAPO-aren barnean sistema orokor bezala katalogatuta dago, ekipamendu publiko nagusi bezala hartuz. Plan Orokorrean ez da zehaztasun gehiagorik ematen, izan ere geltokia kokatzen den gunea alde zaharreko PER-aren barnean garatu eta legeztatu egiten da.


Alde zaharreko PER-aren barnean, 1998an idatzia izan zena eta 2013an azken aldaketa jaso zuna, Atxuriko geltokia konjuntso monumental bezala izendatuta dago eta horregatik babes integrarekin babestu egiten da, hau da babes maila altuena. Horregatik, bertan gauzatu ahal diren obrak ezin dute eraisketa partzialik edo totalik gauzatu.

Jakin zenetik Atxuriko geltokia trenik gabe geratuko zela, administrazioa arreta jarri zion eta gaur egun martxan dagoen Atxuriko ibaiertza lantzeko proposamena garatu egin zen. Bertan San anton zubitik hasi eta Mirafloresko zubirainoko atxuriko ibaiertza lantzen da. Proposamenean bi gune nagusi nabarmentzen dira, lurzorua erabileratik eratorriak direnak: alde batetik, ekipamenduari lotutako orubea; eta beste aldetik, espazio libreei zuzendutako gunea.

Proposamen horren puntu nagusia gaur egun existitzen diren trenbideen aprobetxamendua da, non tranbia-ko linea ezarriko diren, horrela tranbiako linea Etxebarriraino luzatuz. Bestalde, hiritarrentzako espazio libre ugari sortu nahi dute, Atxuriko auzoa ibaira irekiz. Espazio horietan berdeguneak, umeentzako jostakariak eta aire librean aritzeko gimnasioak proposatzen dira. Azkenik beste ibaiertzarekin konexio peatonal bat proposatzen da, Caños pasealekuaren hasieratik (Atxuriko auzoa) eta Zamakola kalera (Bilbao La Vieja) doan pasabidea sortuz.

Atxuriko geltokiari dagokionez, proposamenak ekipamendu publiko bezala izendatzen du, baina bere erabilera ez du zehazten. Administrazioaren aldetik hainbat erabilera entzun dira: mila berdearen programaren barnean sartutako zentru logistikoa, trenbidearen museoa... Auzokideen aldetik ere partaidetza prozesua martxan jarri da, bere auzoan dagoen eraikin enblematikoaren etorkizuna erabakitzeko eskubidea eskatuz. Lokomotorak izena duen parte hartze prozesu honek umeentzako aisialdirako lekuak, kulturako guneak, arterako espazioak... eskatzen dituzte.


PROPOSATUTAKO PLANA



GAUR EGUNGO EGOERA



PROPOSATUTAKO PLANA



PROPOSAMENAREN KALIFIKAZIOA

KRITIKA PROPOSAMENARI

Gaur egun Atxuriko tren geltokiak eta berari zerbitzu ematen dioten trenbideak azalera nabarmen handia okupatzen dute ibaiertzeko leku ezin hobean, Bilboko hirirarrak ibaiertzak ematen dituen aukeretatik aldenduz.

Alboan kokatzen den ebaketa gaur egungo egoeraren erakusgarri dira. Caños pasealekutik gauzatzen da ebaketa hau, non trenbideak (bi norabideko tren lineak eta tranbiaren kotxerak) hartzen du ibaiertzaren leku nabarmenena. Tren linea horiek ibaitik 10 metrotako altuerara kokatzen dira eta linea horiek baino 10 metro altuago Caños pasealekua kokatzen da, non aisialdirako berdegune bat eta bide peatonal bat kokatzen den.

Proposamenak espazio hauek ireki nahi ditu Bilboko hiritarrentzat, Atxuriko auzoa ibaira irekiz. Hori da behintzat euren nahi idatzia, baina proposamena ikusirik lortu nahi dutenetik urrun gelditzen dira. Trenbideen presentzia nabarmena izango da, toki pribilegiatuena okupatuz eta orubearen ertz potente bezala ulertua izango dena.

Lehen aipatutako trenbidearen aprobetxamenduarekin gaur egungo antzeko egoeran geratu ginateke. Trenbideak tranbiako linea bihurtuz gero, azalera gutxi bat liberatu daiteke, aisialdirako gune bilakatuz. Baina tranbiako lineak ibaiertzean kokatuko litzateke, honekin hirirarrak ibaiertzetik aldenduz. Gainera, tranbiako linea Etxebarriaino luzatzeari zentzu gutxi ikusten diot, izan ere tranbiako geltokiak Boluetako eta Etxebarriko metro geltokien parean kokatuko litzateke. Metroko aukera izanda, tranbiako linea ezerezean geldituko litzateke.

Alboko ebaketetan proposamenak gauzatuko litzatekeen egoerak ikus ditzakegu, aurreko ebaketen leku berberetatik gauzatuak izan direnak. Caños pasealekuan ez litzateke aldaketarik egongo, izan ere tren lineak tranbiako lineekin ordezkatu litzateke, ibai ertza okupatuz.


Beheko argazkian argi ikusten da Caños pasealekuaren gaur egungo egoera. Hori ez da aldatuko proposamen berriarekin, izan ere ikusten diren tren lineak tranbiako lineetan bilakatuko dira, ibaiko ertza hartuz eta hiritarren ibaiertzerako irisgarritasuna ekidinez. Argazkia aterata dagoen lekutik aurrera proposamenak ez du ezer berrik proposatzen, gaur egungo egoerari aldaketa bat ere ez gauzatu gabe.

Harrigarri da Bilboko udalak bestelako espazio urbanoak ez proposatzea leku honetan bere RIA2000 plana garatu eta gero, ibaia eta horrek garatu litzazkeen espazio erakargarri eta erosoak alboan egonda. Ibaia ematen dituen baliabideak guztiz desaprobatzatu egiten dira. Badirudi Bilboko udalak ibaiari bizkar egiten diola, beharrezkoa iruditzen ez zaidan zerbitzu baten luzapena proposatuz horren ordez. Nahiko erabilia den paseo honetan, bakarrik banku batzuk egonda, kalitate handiagoko bide bat sor litzateke, ibaiertzaren albo alboan.


CAÑOS PASEALEKUAREN ETA TRENBIDEAREN ARTEKO HARREMANA



GAUR EGUNGO EGOERA



PROPOSATUTAKO PLANA



BILBO KONEKTATZEN

Garatutako proposamenak eta administrazioaren nahiak, batez ere tranbia Etxe-barriraino luzatzeko nahia, baztertuz gero, bestelako aukerak agertzen dira espazio urbano hau antolatuzko orduan.


Trenbide lineak kentzen badira eta horiek hiritarrentzako espazioa (ez autoen, ez tranbien, ez edonolako ibilgailu motaren espazioa) bihurtzen basura espazio hauek, bai Atxuriko geltokiko inguruneak, baita Caños pasealekuaren ibilbideak, kalitate handiagoa lortuko lukete, ibaiarekin harreman zuzena izateko aukera izango baitute. Horrek bestelako espazio urbanoak diseinatzera bultzatuko gaitu, ibai espazio honen ardatza izanik eta honi garrantzi handiagoa emanez. Horrela Bilboko ibai ertzan zehar, Deustutik La Peñako auzora, hiritarrentzako espazio publikoen segida lortuko litzateke, gaur egun tren lineak hori lortzea oztopatzen baitute.

Nahiz eta trenbideak kendu, horiek dituen azpiegiturak, hala nola, Larreaguburu parkearen behealdetik pasatzen den tunela, probestuko litzateke Bilboko auzo ezberdinen artean konexio berriak sortuz. Konexio peatonalak edo bizikleta bidezkoak gauzatzea proposatzen da, auto edo edonolako ibilgailu motaren hautabidea jasangarriago bat eskainiz, Bilbotik aldentuta dauden bi auzoentzako: La Peña eta Bolueta.

La Peñako auzoa betidanik konexio kaskarrak izan dituen auzoa da, bere egoera isolatu eta aldentua dela eta. Bertara iristen den zerbitzu publiko bakarra autobus linea bat da, bestelako alternatibarik eduki gabe. Boluetako auzoa garapenean dagoen auzoa da eta hirian gehien handitzen ari den auzoa gainera, baina metroaz gain ez du bestelako konexio alternatiba handirik. Hauek trenbide lineen liberazioarekin Bilboko alde zaharrarekin eta bestelako espazioekin konexio zuzena lortuko litzateke, peatonala eta irisgarria izango dena.

Azkenik, Bilboko eraztun berdearekin ere konexio berria jorratu daiteke. Ibai ertza inguruan Larreaguburu (Atxuri eta Bolueta artean dagoen muinoan) eta Abusuko (La Peña) parkeen luzapen bezala funtzionatuko lukeen berdegune bat garatuko da, horren bidezko lotura osatuz Bilboko zentrutik Bilbo inguruan dauden mendiek osatzen duten eraztun berdearekin.


BILBOKO ERAZTUN BERDEA



PROPOSATURIKO KONEXIO BERRIAK


Argazkian ikusten den tunela da erabiliko dena konexio berriak garatzeko. Legarburu parkearen azkitik pasatzen da Atxuriko eta Boluetako auzoak lotzen. Honetan bidegorri bat proposatuko da, Morlans-eko (Donostia) tunelan bezala. Horren bidez, alternatiba jasangarri eta azkarra proposatuko da bi auzo hauen loturarako





EGUNGO EGOERA

Proiektuaren abiapuntu bezala gaur egun kokatzen diren elementu eta zerbitzu guztiak hartu dira kontuan, non trenbideek ibaiertzeko eremua hartzen duten. Linea horren inguruan bestalako zerbitzuak kokatzen dira, trenbide eta tranbiaren funtzionamendua bermatzen dutelarik, hala nola, tranbien ko-txerak, mantenimendu tailerrak, trenen nasak... Zerbitzu guzti horiek muga fisiko potentia osatzen dute, ibai ertza eta atxuriko auzoak izan dezaketen konexioa bertan bera utziz.




TREN LINEEN DESAGERPENA

Lehenik eta behin trenbideen lineak eta atxuriko geltokiaren nasak desagurtuko dira, izan ere, bertara iristen diren tren linea guztiak Bilboko 3. lineak xurgatuko ditu, eremu honetan kokatutako lineak erabilera gabe utziz. Horrela, ibaiertzeko espazioaren liberalizazioarentzako eta hiritarren probetzurako espazioak lortzeko prozesuaren lehen pausuak ematen dira.




TRANBIAREN LINEEN EGOKITZAPENA

Tren lineak kendu ostean, tranbiarenak oraindik iraungo dute, izan ere, horien kotxerak eta mantenimendu tailerrak bertan kokatuta daude.. Atxuriko tranbia geltokia eta horren zerbitzuak lotzen dituen lineak ibaiertzan kokatzen dira, gune pribilegiatuena okupatuz. Horren liberalizazioa gauzatzeko horren lineen egokitzapena gauzatu da. Horrela, tranbia Atxuri kaletik eramatea proposatzen da, errepidearen bide bat okupatuz eta bertan kokatuz horren geltokia. Tranbiaren azken geraleku hori eta horren zerbitzuak lotzeko lineak ibaiertzetik ahalik eta urrunen kokatzen dira.




TRANBIA ZERBITZUEN EGOKITZAPENA

Behin tranbia lineak egokituz, horren zerbitzuak, hau da euren kotxerak eta garbiketa gunea isolatutak geratzen dira. Horien berkolokazioa gauzatzen da, ibaiertza liberalizatuz. Kotxerak mantenimendu tailerraren handipena gauzatuz txertatzen dira tranbiaren trama berrian; garbiketa gunea, berriz, mantenimendu tailerraren aurrean kokatutako Euskotreneko orube hutsean kokatzen da.




LIBERATUTAKO ESPAZIOAREN URBANIZAZIOA

Behin ibaiertza liberalizatuz bertan ibaiertzeko paseo bat gauzatzen da, bilbo osoan zehar lantzen den ibaiertzeko paseoa, eta gune honetan trenbideen lineen existentziagatik oztopatzen dena, La Peña eta Bolueta auzoetara arte luzatuko da, historikoki isolatuak izan diren auzo horiekin konexioa indartuz. Paseo hau hiritarren probetxurako eta aisialdirako zuzenduta egongo da, antzinean existitu zen paseoa berreskuratuz. Horrez gain, Rivero Garcia ikastetxearen eta Atxuriko geltokiaren bolumen nagusiaren arteko kalea peatonali zatu egiten da, umeen segurtasuna bermatuz.



ENKARNAZIO ELIZAREN ARDATZA

Azkenik, Enkarnazio elizak eta ibaiertzak lotzen dituen ardatza landu da. Horrela, eliza ibaiertzerara irekitzeko nahian, Atxuriko geltokia osatzen duten bi bolumenen arteko trantsizio baoak pasura irekiko dira. Bao horien irekierak bi bolumenak guztiz ezberdintzea ahalbidetuko dute. Bolumen horiek funtzio ezberdina beteko dute: alde batetik bolumen nagusian Euskotreneen bulegoak eta tranbia kontrolatzeko beharrezko zerbitzuak txertatuko dira; bestetik, hangarra osatzen duen bolumena landuko da aipatutako arteen produkzio zentroa izateko.



LANDUKO DEN PIEZA

Aipatu bezala Atxuriko geltokiaren hangarra da landuko den pieza. Honek 100 metro inguruko luzeera eta 15 metroko zabalera du, bi solairutan antolatzen dena. 3 solairu bat du, altuerako hazkunde baten ondorio izan zena, 15 metro luze eta 15 metro zabalekoa dena, hangarraren hasieran kokatzen dena.

Pieza honen egitura perimetroan kokatutako harrizko karga hormaz eta zementu armatuzko zutabez osatuta dago. forjatuak baita zementu armatuzkoak izanik.


HANDIPENA GAUZATZEKO ERREFERENTZIA

Hangarrak duen azalera ez da aski izango garatu nahi den produkzio zentroa gauzatzeko eta beraz handipen bat garatuko da. Tipologia honetako eraikinak eta eraikinaren historia aztertuz nabari da markesina metalikoen erabileraren falta gaur egu. Beraz, markesina metaliko horren berrinterpretazio gauzatzea izan da proiektuaren ideietako bat, eraikine existentera txertatzeko historikoki erabili izan den ideiatik abiatuz.




EGITURA ESKEMAREN LUZAPENA

Hangarraren nabearen egitura sistema aztertu da eta erabaki da egitura horren luzapena gauzatzea eraikin berria gauzatzeko. Horrela, berria eta existentearen arteko elkarrizketa sortuko da egituraren erritmoan bitartez




BARNE KALEA

Eraikin existentearen eta berriaren artean instalita egongo den kale bat proposatzen da, horrela eraikin berria oso landua den fatxada batez urrunduz. Kale hori proiektuaren ardatza izango da, ibaiaren paralelo jartzen dena.





ZERBITZUEN KONTZENTRAZIOA TAILERREN LIBERALIZAZIOA

Eraikin berrian luzeeran garatutako ardatzaren buruetan espazio zerbitzariak (informazioa, aldagelak, komunak...) kokatuko dira. Espazio hauek finkoak izango dira. Horrela beste espazio guztietan nahierara antolatzeko gaitasunarekin proiektatzen da.




TAILERREN KONPARTIMENTAZIOA VS TAILER UNITATEA

Eraikinak izango duen erabilera dela eta eskala oso ezberdineko espazioak beharko dira. Horregatik erabaki da eraikin existentean tailer handi bakarra agertzea, bestalde eraikin berrian, tailerrak baika konpartimentatzeko aukera emango du.




EGUNGO EGOERA

Proiektua existentea eta berriaren arteko kontaktu puntuaren soluzioan datza. Horregatik ebaketan landuko da, bai orubearen eta bai lortu nahi den beharren eta baldintzen ebaketa eskema segida baten bitartez.




PASEOAREN BISTAK ERRESPETATU

Paseoaren luzeera guztian ibairako bistako oztopo barik garatzen dira eta ideia hori ere eraikin berria kokatzen den eremura ere zabalduko da, inolako zutabe edota horma ibaiaren bistak oztopa ez dezan.




MUGA FISIKOAK

Lehenik eta behin, ebaketan eskema honetan muga fisikoak kokatu dira, eraikinaren zabaleta mugatzen dutenak. Muga horiek eraikin existentearen fatxadek eta ibaiertzaren mugek osatzen dute.




ZUTABEAK FINKATU

Behin paseoan sor litezkeen zutabeak kenduz horizontalki karga jeisteko bi puntu geldituko lirateke. Beraz, bi lerro horiek karga jeitsieraz arduratuko diren zutabeak izango dira.




FLUXUEN ANTOLAKETA

Ondoren erabiltzaileen ibilbide fluxuen araberrako lerroak kokatu dira. Alde batetik, ibaiertzan landu den paseoaren jarraitutasuna bermatzeko zabalera utziko da; bestalde, barne kalea dugu, eraikinaren ardatza izango dena.




FATXADA ERRESPETATU + ARGIZULO

Eraikinaren existentaren fatxada errespetatu nahi da, bertan gauza litezkeen apoioak zerora eramanez. Horregatik erabaki da berria eta existentearen artean argizulo bat sortzea, egitura berriaren hegaldura baten bitartez.




ERAIKIN EXISTENTEAREKIN HARREMANA




Ostean eraikin existentearen altuera nabarierak hartu dira kontuan. Horrela lehenengo solairuaren altuera bera izango dute, bien arteko konexioa bermatuz bai lehenengo solairuan bai behe oinean. Bestalde, eralaitzaren eta gailurraren altuerak artu dira, berria eta zaharraren arteko eskala mantentzeko asmotan.




PUNTUAK LOTU

Azkenik, geratzen zen ariketa puntuak lotzea izan da, bertatik ebaketaren eskema funtzionala, existentearekin errespetua mantentzen duena eta nabearen aldaketa formalei erantuzn ematen diona lortzen da.








KANPO MATERIALITATEA

Kanpoan landu den fatxada zinc-ezkoa egitea erabaki da. Horrela fatxada jarrai bat lantzaea ahalbidetzen du, estalkia eta fatxada bat eginez. Fatxadak egituraren erritmoak jarraituko du, sortzen den betea eta hutsaren arteko jokoan. Zinkezko plakak perforatuak egongo dira, barnera argia sartzea ahalbidetuz behar den uneetan, baina pribatutasuna mantenduz.


Berria eta existentearen arteko disoziaketa landu nahi izan da materialtasunarekin, pisutsua eta arinaren artean, potentea eta fina, etereoa eta iraunkorra.




BARNE KALEAREN MATERIALITASUNA


Tailerretako eta barne kalearen arteko harremana egon dadin polikarbonatozko plaka zeharargiak erabiltzea erabaki da. Horrela, barne kaletik tailerretan gauzatzen diren akzioak susma daiteke, barne kaleari beste izaera bat emanez eta bi paretan arteko pasilo luzearen sentzazioa ekidinez.

Kasu honetan ere disoziaketa jokoak sortuko da barneko fatxaden artean, harrizko fatxada existentea eta polikarbonatozko fatxada berria, zeinak egituraren erritmoari esker elkar harremanetan jartzen dir





MEMORIA GRAFIKOA




E:1/10000

ART
STATION

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

KOKAPENA

P01




**ART
STATION**

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

KOKAPENA

E:1/5000

P02





ART
STATION

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

GAUR EGUNGO EGOERA: OINAK


E:1/600

P03




E:1/200

A-A'



B-B'

E:1/500



D-D'

E:1/500


**ART
STATION**

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian


GAUER EGUNGO EGOERA: EBAKETAK

P04


GAUR EGUNGO EGOERA




TREN LINEEN DESAGERPENA




TRANBIA LINEEN EGOKITZAPENA




TRANBIA ZERBITZUEN EGOKITZAPENA



LIBERATUTAKO ESPAZIOAREN URBANIZAZIOA



ENKARNAZIO ELIZAREN ARDATZAREN IREKIERA




EGITURA EXISTENTEAAREN LUZAPENA

BARNE KALEA

ZERBITZUEN KONTZENTRAZIOA / TAILLEREN LIBERALIZAZIOA

TAILLEREN KONPARTIMENTAZIOA VS TAILER UNITATEA




GAUR EGUNGO EGOERA

MMUGA FISIKOAK

FLUXUEN ANTOLAKETA

ERAIKIN EXISTENTEAREKIN HARREMANAK





PASEORAKO BISTAK LIBRE

ZUTABEAK FINKATU

FATXADA ERRESPETATU + ARGIZULOOA

PUNTUAK LOTU






ART
STATION


Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

AKTTUAZIO EREMUAREN OINA

E:1/2000

P07







**ART
STATION**

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

LEHEN SOLAIRUA

E:1/400

P09





ART
STATION



Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian



EBAKETA A-A'

E:1/150

P10








ART
STATION

Arteen Produkzio Zentroa
Atxuriko Tren Geltokian

EBAKETA E-E'

E:1/150

P13



EBAKETA F-F'


E:1/500




EBAKETA G-G'

E:1/500

ALTXAERA ATXURI KALETIK




ALTXAERA IBAITIK




ALTXAERA IBAITIK


E:1/400



ALTXAERA ATXURI KALETIK

E:1/400





E:1/150